

SOCIEDAD

Ixa ikertaldeko Eneko Agirre saritu du G Researchek

Hamar sari eman dituzte hizkuntza prozesameduaren alorrean, eta horietako bat jaso du, 50.000 dolarrekoa, hitzen eta on-line kontzeptuen hizkuntza arteko esanahia aztertzen jarrai dezan

DV | DONOSTIA

18 marzo 2016
11:42

Eneko Agirrek, UPV/EHUko Informatika Fakultateko Lengoia eta Sistema Informatikoak Saileko irakaslea eta IXA ikertaldeko kideak, Googlek urtero ematen dituen ikerketa sarietako bat jaso du ([Google Research Awards](#)). Agirre irakaslea, azterlana egiteko, Aitor Soroa irakaslearen, Oier López de la Calle ikertzailearen eta Josu Goikoetxea doktorego ikaslearen laguntza izan du.


Euskal Herriko Unibertsitateak ohar baten bidez jakinarazi duenez, Googlek 10 sari eman ditu hizkuntza prozesamenduaren alorrean. Hala, Agirrek ez ezik, saria eraman dute besteak beste Harvardeko, Berkeleyko, Edinburgoko eta Washingtoneko unibertsitateetako ikertzaileek ere. Guztira, Googlek 151 proposamen saritu ditu (informatikaren 18 esparrutako 950 izangairen artetik), 55 herrialdeetako 350 unibertsitatek bidalitakoak. **Eneko Agirre** irakaslea 50.000 dolar jasoko ditu 'Learning Interlingual Representations of Words and Concepts' ikerketarako, hitzen eta on-line kontzeptuen hizkuntza arteko esanahia azter dezan.

Hitzen esanahia irudikatuz

PUBLICIDAD



UPV/EHUko Informatika Fakultateko Lengoia eta Sist irakaslea da Agirre.



Men? en la Par
RESTAURANTE EKAITZ

Gaur egun, itzulpen automatikoen edo sareko bilaketa motorren arazoa hitzen literaltasuna da; hau da, apitzultzen edo bilatzen du hitza, esanahiari erreparatu gabe. Alabaina, Googlek saritutako lanari esker, baliteke hobetzea.

Eneko Agirrek azaldu duenez, «ikerketa honen helburua hitzen esanahia irudikatzea da; hau da, jakitea biderik onduen lotuta hizkuntza batean edo hizkuntza desberdinetan. Hiztegi bat eskuetan eduki eta zein hitzek dute zeinek ez jakitea bezala litzateke. Kasurako, bide emango liguke jakiteko banku hitzaren esanahia aurrezki kutxa antzekoa dela, zer esan nahi den, baina astelehen edo katu hitzenaren desberdina. Azken batean, guk hitz bati irudikatzen ditugu, eta bereiz dezakegu banku hitzaren zentzu batek aurrezki kutxa-rekin eta besteak aulki-re ez alderantziz. Gainera, gure proposamena gai da hainbat hizkuntzatarako hitzen esanahiak espazio bakar batean esker, jakin ahal izango dugu banku hitzaren zentzu bat ingeleseko bank hitzaren eta euskarazko kutxa hitzaren beste zentzua chair eta aulki hitzen antzekoa, baina bi zentzu horietako bat ere ez dela astelehen, Monday, katu antzekoa».

Prozesua gauzatzeko, irudikapen hori ikasi behar da agiri mordo batean oinarrituta, adimen artifizialaren baliatuz. Irudikapena ikasitakoan, sistemak datu basean begiratzen du ea zein beste hitzen antzekoa den guk dugun hitza. Eta, esanahiaren arabera, hitz hori duten dokumentuak erakusten ditu, nahiz eta zehazki ez izan berbera.

Horrez gain, metodo hau edozein hizkuntzatan ezar daiteke. Dena dela, ikerketan hiru hizkuntza hartu dira euskara eta ingelesa. «Guk darabilgun aplikazio informatikoa erabat automatikoa da, eta, horri esker, erabiltzaile hizkuntzatarako irudikapenak ikas ditzake».


Metodo mota horiei eusten dieten metodoak dira Eneko Agirrek UPV/EHUko Donostiako Informatika Fakultatearen 'Analysis and Processing' **masterrean** ematen duen ikastaroaren oinarria.



¿Cuánto quieres ganar?

Rentabilidad de hasta un 3% de interés y descuentos por tus recibos

www.bancosantander.es



¿Confía en su banquero?

Aquí hay 5 cosas que su banquero no quiere que sepa. Lea más...

www.iforex.es



2 LÍNEAS DE MÓVIL GRATIS

Promo de Navidad: Fibra al precio del ADSL y 2 líneas de Móvil GRATIS.

www.jazztel.com



Nissan Juke

Desde 12.900€*. Con 3 años de mantenimiento, garantía, asistencia y Plan PIVE

www.nissan-ofertas.es



Gana más por tus ahorros

Abre ahora tu Depósito NARANJA a 3 meses al 1,90%TAE de ING DIRECT

www.ingdirect.es

Copyright © Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición e